



munduko hizkuntzen amarauna

HIZKUNTZA OFIZIALAK ETA HIZKUNTZ ANIZTASUNA EUROPAR BATASUNEAN

Miquel Siguan

1.- EUROPA: HIZKUNTZ MOSAIKOA

Europako historiaren hastapenean, Goiz Erdi Aroan, kontinente horretako biztanleek hainbat eta hainbat hizkuntza hitz egiten zituzten. Hizkuntza horiek guztiak ahozkoak ziren; izan ere, latinez soilik idazten zen garai hartan elizak eta jende jantziak soilik erabiltzen zuten. Denborarekin, herri hizkuntza horiek garatu egin ziren: literatura mailan erabiltzen hasi ziren, berme politikoa lortu zuten, idatzi egin ziren, eta, azkenik, latina ordezkatu zuten. Inprentaren asmakizunak, lehenik, eta XIX. mendean zehar hedatutako hizkuntz nazionalismoak, ondoren, hizkuntza bakoitzaren berariazko garrantzia sustatzen lagundu zuten.

Gaur egun, “Atlantikoan hasi eta Uraletara heldu arte” –De Gaulle jeneralaren hitzak gogoratuz–, 36 estatu subirano eta independente daude, eta bertan 33 hizkuntza ofizial daude. Horiez gain, badira ofizialak ez diren beste hogeitaz hamar hizkuntza baino gehiago. 70 hizkuntza baino gehiago asko bada ere, kopuru horren garrantzia asko txikitzen da munduko bost edo sei mila hizkuntzak kontuan hartuz gero. Aitzitik, hizkuntza gehienak oso jende gutxi hitz egiten ditu, ez dira idazten, eta ez dute garrantzi politikorik. European hitz egiten diren hizkuntza gehienek kultur tradizio garrantzitsua izateaz gain, berme politiko nabarmena dute. Hori guztia dela eta, badugu hizkuntz mosaikoari buruz hitz egiteko behar adina arrazoi.

Europako herrien aniztasunarekin batera, herri horiek etengabeko harremanak izan dituzte elkarren artean; horren ondorioz, hizkuntza komunak erabili behar izan dituzte elkar ulertu

ahal izateko. Latina izan zen lehenengo hizkuntza komuna. Ondoren, beste zenbait hizkuntza erabili izan dira –frantsesa, esaterako–; bestela, hizkuntza artifizialez baliatu izan dira. Gaur egun, munduaren globalizazioa hedatzen ari da, eta mugen arteko harremanak gero eta estuago bilakatzen ari dira; horren ondorioz, geroz eta handiagoa da hizkuntza komun baten beharra. Alde batetik, beraz, hizkuntza komunak erabiltzeko joera hedatzen ari da; beste batetik, berriz, bada hizkuntz aniztasunari eusteko asmo sendoa. Beraz, bi joera horien arteko tirabirak agertu dira. Gainera, Europar Batasuna sortu zenetik, tirabira horiek areagotu egin dira.

Europako hizkuntzak ez dira elkarren artean beren jatorriarengatik edo historiarengatik soilik bereizten. Badira beste zenbait gai; hiztun kopurua, esaterako. Gai horri dagokionez, lau maila bereizten dira:

- Europar 10 milioi lagun baino gehiagok hitz egiten dituzten hizkuntzak. Besteak beste, 90 milioik alemana, 60 milioik ingelesa (Erresuma Batua eta Irlanda barne), 60k frantsesa, 58k italiara, 40k gaztelania, eta azpiko muga, 10ek greziera, eta beste 10ek txekiera.
- 1 milioi eta 10 milioi arteko lagunek hitz egiten dituzten hizkuntzak. Besteak beste, 8´3k bulgariara, 6k katalana, 5´4k eslovakiera, 1´6k estoniera, 1´3k sardiera.
- 1 milioi lagun baino gutxiagok hitz egiten dituzten hizkuntzak: 600 mila pertsonak euskara, 600 milak galesa, 400 milak maltera, 400 milak frisiera, 350 milak luxenburgera, 180 milak bretoiera.
- 100.000 lagunek baino gutxiagok hitz egiten dituzten hizkuntzak: 80 mila pertsonak friulera, 60 milak arumanera, 25 milak samiera (eskimala).

Gainera, Europako hizkuntzak bakoitzaren erabilera moduaren arabera ere bereizten dira: zenbaitek literatur tradizio handia dute, eta beste zenbaitek, berriz, ez; zenbait hizkuntza gizarte jardura guztietan erabiltzen dira, eta beste zenbait hizkuntza, berriz, familian eta egunerokotasunean soilik. Azken horien artean, badira gutxieneko kodifikazio mailarik lortu ez dutenak ere, eta, horren ondorioz, zaila da horiek idatzi ahal izatea.

Azkenik, hizkuntza guztiek ez dute egoera legal eta politiko bera. Estatuak politikoki antolatzeko egitura nagusi bihurtu zirenetik, hizkuntzen arteko banaketa gertatu da, eta horrek ondorio itzelak ekarri ditu; hau da, estatu baten baitan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak bereiztea. Hizkuntza ez-ofizialen barruan, zenbait maila bereiz daitezke bakoitzaren egoera juridikoaren eta administratiboaren arabera: badira estatu mailan ofizialak ez diren zenbait hizkuntza, baina koofizialak dira lurralde jakin batean –lurralde horrek autonomia maila jakina du–; esaterako, katalana eta euskara (Espainian) eta faroera Faroe Uharteetan (Danimarkan). Beste zenbait hizkuntzaren kasuan, berriz, koofizialak ez badira ere, estatuak nolabaiteko babesa eskaintzen diete; esaterako, galesera Erresuma Batuan edo friulera Holandan. Badira babesik gabeko hizkuntzak, nahiz eta onartuak izan; esaterako, bretoiera Frantzia. Azkenik, zenbait hizkuntza ez dira onartzen, eta debekatuta dago horiek erabiltzea; nahiago dugu hizkuntza horiei buruzko adibiderik ez eman.

Ikusi dugunez, ezaugarri askok bereizten dituzte Europako hizkuntzak; horren ondorioz, sarritan, paradoxazko egoerak sortzen dira. Adibidez, zenbait hizkuntza ez-ofizialek hiztun

kopuru gehiago dituzte estatuko hizkuntza ofizialak baino. Hizkuntza horiek sarritan kultur hedapen zabalagoa dute. Aitzitik, hizkuntza ofizialei soilik bermatzen zaizkie eskubide guztiak. Kontraesan hori areagotu egingo da, Europar Batasunak erabateko bereizketa egiten baitu hizkuntza ofizialen eta hizkuntza ez-ofizialen artean.

2.- EUOPAR BATASUNA: HIZKUNTZA OFIZIALAK/LANERAKO HIZKUNTZAK

Erromako Itunak Europako Erkidegoa sortu zuen –egungo Batasunaren aurrekaria–, helburu ekonomikoekin soilik. Halere, berehala erabaki behar izan zituzten erakunde berriaren hizkuntz irizpideak. Ez zituzten hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak bereizi nahi –bereizketa hori nazioarteko erakunde gehienetan egiten bazen ere–; beraz, hau erabaki zuten: Erkidegoa osatzen zuten herrialdeen hizkuntza ofizial guztiak erakunde berriaren hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak izango zirela. Hizkuntza horiek frantsesa, alemana, nederlandera eta italiara ziren. Irlandera, berriz, Irlandako Errepublikako hizkuntza koofiziala zen, ingelesarekin batera. Beraz, erregimen berezia ezarri zen hizkuntza horren inguruan: irlandeara funtsezko dokumentuak soilik itzuliko zirela erabaki zuten.

Denborarekin, Erkidegoa handitu egin zen, eta herrialde gehiago sartu ziren. Kasu guztietan kide berrien hizkuntza ofizialak Erkidegoko hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza bihurtu ziren. Erkidego hori Europar Batasuna da, gaur egun. Erkidegoa behin eta berriz handitu zenez, gaur egungo Batasunak 11 hizkuntza ofizial/lanerako hizkuntza ditu: alemana, frantsesa, ingelesa, daniera, nederlandera, gaztelania, italiara, greziera, portugesa eta suediera. Eta dagoeneko beste 10 herrialde sartzea onartu dute; horren ondorioz, Batasunak beste 9 hizkuntza ofizial izango ditu: eslovakiera, esloveniera, estoniera, hungariera, letoniera, lituaniera, poloniera, txekiera eta maltera. Beraz, oro har, 20 hizkuntza (ofizialak eta lanerakoak) izango dira.

Erakundeak egindako ahozko nahiz idatzizko ekintza guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzuli behar dira, eta lan horretan hainbat eta hainbat itzultzailek dihardute. Horrek guztiak kostu ekonomiko handiak ekartzen ditu. Hizkuntza ofizialen kopurua handitu denez, ondorio horiek areagotu egin dira. Hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak parekatzea, batetik, eta itzulpenen kostu ekonomikoa, bestetik, betidanik hartu izan dira kontuan. Baina zabalkuntza berriekin, gai horien lehentasuna azpimarratu egin da, eta eztabaida sutsuak sortu dira horien inguruan. Eztabaida horietan sartu aurretik, hau gogoratu behar dugu: errealitatean, hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak ez daudela benetan parekatuta.

3.- BENETAKO FUNTZIONAMENDUA

Hizkuntza ofizialen eta lanerako hizkuntzen arteko parekatzea bene-benetan gauzatu ahal izateko, Batasuneko funtzionarioek hizkuntza guztiak erabiltzeko gai izan beharko lukete. Aitzitik, jakin badakigu funtzionarioei, beren jatorrizko hizkuntzaz gain, Batasuneko beste hizkuntza bat jakitea besterik ez zaiela eskatzen. Hasieratik ohartu ziren ezintasun horretaz,

eta, Batasunaren lehenengo urtetan hau erabaki zuten: Batasuneko erakunde bakoitzak bere hizkuntz araudia sortu behar zuela.

Har dezagun Europako Batzordea adibide gisa. Erakunde horren jarduera da handiena, eta funtzionario kopururik handiena biltzen du. Batzorde horretan, edozein proposamen hizkuntza jakin batean egiten da, eta proposamen horren izapidea hizkuntza horretan egingo da. Horren idazketa partzialak, berriz, hizkuntza guztietara itzultzen dira. Horren ondorioz, proposamen hori Komisarioen Erkidegoan eztabaidatu behar denean, hizkuntza guztietan irakur daiteke. Batzordeko gainerako jarduerak ingelesez edo frantsesez egiten dira, baita alemanez ere, neurri batean. Kanpoko bilerei dagokienez, ofizialak direnean edo estatuen ordezkariak parte hartzen dutenean, esandako guztia itzultzea eskatu ohi dute, ordezkatzan dituzten estatuen hizkuntzetara behintzat. Emandako dokumentuak ere hizkuntza horietara itzultzea eskatzen dute; halere, irtenbide moldakorragoak bilatu behar dira. Beraz, Batzordeko ordezkari pertsonalen eta sektore pribatuen ordezkarien arteko bileretan partehartzaile gehienek ezagutzen duten hizkuntza erabiltzen dute: hau da, frantsesa edo ingelesa, eskuarki.

Batasuneko gainerako erakundeek lanerako hizkuntza jakinak dituzte. Justizia Auzitegiaren kasuan, estatu edo pertsona batek prozesu bat aurkezten duenean, horretarako erabili duen hizkuntza bera erabiliko du. Halere, oinarritzko hizkuntza frantsesa da. Kontuen Auzitegian frantsesa, ingelesa eta alemana erabiltzen dira. Patenteen Buroan, berriz, frantsesa, ingelesa, alemana, gaztelania eta italiara erabiltzen dituzte. Azkenik, Europako Banku Zentralean – Batasunak sortutako azken erakundea – ingelesa soilik erabiltzen dute, nahiz eta Frankfurtan egon.

Batzordeak argitaratu berri duen testu honek orain arte esandakoa laburbiltzen du: “Batzordeak funtzionatu ahal izateko, komunikazioa Europa mailakoa izatea lehentasun bat da. Batasunari buruzko dokumentu ofizialak eta informazio orokorra Batasunaren 11 hizkuntza ofizialetan daude: horrela, hiritar guztiek informazio hori guztia eskuratzeko aukera izango dute; haiengan eragin zuzena duen informazioa, hain zuzen. Hiritar guztiek dute beren ama hizkuntza erabiltzeko eskubidea Batzordearekin harremanetan jartzeko. Europar Batasunak mikrokosmos bat denez, Batzordea hizkuntza ofizial guztietako hiltunez osatuta dago, baita beste zenbait hizkuntzatako hiltunez ere. Funtzionario bakoitzak hizkuntza guztiak hitz egitea ezinezkoa denez, konpromiso bat sortu beharra dago. Batzordean, erabilgarritasunari begira, barruko dokumentuak hiru hizkuntzatan idazten dira, eskuarki: ingelesez, frantsesez eta alemanez. Kasu askotan funtzionario bakoitzak hizkuntza horietako bat hitz egiten du gutxienez, eta barruko bileretan hizkuntza horiek erabiltzen dira”. *Europako hiritarraren zerbitzura*. Europako Batzordearen Argitalpena 2003 ISBN 92-894-4011-2

Laburbilduz, Batasunaren arabera, hizkuntza ofizialak lanerako hizkuntzak ere badira, berdin-berdin. Halere, benetako egoera honela labur daiteke: hiritarren ordezkariak, Parlamentuko diputatuak edo (Ministroen Batzordean) gobernuetako ordezkariak esandako guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzen da. Gainera, Batasuneko edozein erakundeetako erabakiak adierazten dituzten dokumentu guztiak eta erabaki horien oinarri diren dokumentu guztiak hizkuntza guztietara itzultzen dira. Bestalde, estatu nahiz hiritar guztiek, Batasuneko erakundeekin harremanetan jartzeko, beren ama hizkuntza erabil dezakete, eta Batasunaren funtzionamenduari buruzko informazio orokorra hizkuntza ofizialetan eskaintzen da. Egoera horietaz gain, erakundeen eguneroko jardueretan ingelesa eta frantsesa erabiltzen dira lanerako hizkuntza gisa, baita alemana ere, neurri batean.

4.- AURREIKUS DAITEKEEN ETORKIZUNA

Egin daitezkeen aldaketei buruz eztabaidatzen denean, guztiak daude ados ideia honekin: zenbait egoeratan hizkuntza ofizial guztiak erabili behar dira –aurretik azaldutako egoeretan, gutxi gorabehera–; Europako erakundeen gainerako jardueretan, ordea, hizkuntza jakinak soilik erabili beharko lirateke. Azken horiek lanerako hizkuntzak izango lirateke. Hizkuntza horiek zein diren erabakitzeke orduan eztabaida sortzen da. Hauek dira ikuspegi desberdinak:

Lehenik eta behin, zenbaiten ustez (pribatuan pentsatzen dute, nahiz eta publikoki ez adierazi), ingelesa da mundu mailan komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza. Beraz, Europar Batasunak ere hizkuntza hori soilik erabili beharko luke lanerako hizkuntza moduan. Ideia hori, zalantzarik gabe, ez da inolaz ere onartuko. Halaber, ez da esperantoa bezalako hizkuntza neutrorik onartuko.

Honako proposamen hau onargarriagoa dirudi: lanerako hizkuntzak ingelesa eta frantsesa izatea. Irtenbide hori, duela zenbait urte hartu izan balute –1958an Erromako Ituna sinatu zutenean, esaterako– inork ez luke gaur egun eztabaidatuko. Baina gaur egun ezinezkoa da Alemaniak erabaki hori onartzea. Izan ere, alemana da Batasunean gehien hitz egiten den hizkuntza. Horrez gain, Alemaniaren egitekoa oso garrantzitsua da Batasuneko politikaren baitan. Hori guztia onartuz, proposamenik egokiena hau da: lanerako hizkuntzak ingelesa, frantsesa eta alemana izatea. Zenbait herrialde prest egongo lirateke proposamen hori onartzeko, baina Erromako Itunak Batasuneko hizkuntza araudia aho batez onartu behar dela xedatu zuen. Horren inguruan, zenbait herrialdek edozein aldaketaren aurka daudela adierazi dute dagoeneko. Beraz, zabalkuntzak zailtasun ugari ekarri baditu ere ez da ezer aldatuko, dirudienez.

Halere, etorkizunean, gauzak hobeto pentsatzen badituzte, lanerako hizkuntzak bi edo hiru soilik izango dira. Kasu horretan, hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen artean egun egiten den erabateko bereizketa –eskualdeko edo gutxien hizkuntzak, Batasunaren hitzetan– leundu egingo litzateke, eta zenbait hizkuntza ez-ofizial Batasunean erabiliko lirateke, eta Batasunak bere jardueren baitan barneratuko litzuke, ondoren ikusiko dugun bezala.

5.- BATASUNAK HIZKUNTZEN ALDE BULTZATUTAKO EKINTZAK

Hizkuntzarekin lotutako gaiet buruz hitz egiten denean, EBri dagokionez, hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak parekatzeari buruz pentsatzen dugu. Orain arte, horri guztiari buruz hitz egin dugu. Halere, EBren hizkuntza politika aztertzerakoan, Batasunak hizkuntzen alde egindako ekintzak ulertu behar dira, lehenik eta behin. Jakin badakigu EBk kultur eta hizkuntz aniztasunari eustearen aldeko apustua egin zuela hasieratik, eta, aspalditik, europarrek atzerriko bi hizkuntza erabiltzeko gaitasuna izatea bultzatu nahi dute.

Helburu hori lortzeko, Batzordeak zenbait ekimen abiarazi ditu, Batasuna osatzen duten herrialdeetan atzerriko hizkuntzak irakasteko. Atzerriko hizkuntza horiek Batasuneko beste edozein herrialderen hizkuntza ofizialak dira. Gaur egun, ekimen horiek *Socrates* programan biltzen dira, eta, horren baitan, badira beste zenbait azpiprograma: *Lingua*, *Leonardo* –lanbide

hezkuntzara bideratua– eta *Erasmus* –unibertsitateko ikasleek Europako beste herrialde batzuetan ikasten dute–. Programa horien edukiak ulertzeko hau ulertu behar da: Batasuna osatzen duten herrialdeek ez dutela arazorik izan beren subiranotasun ekonomikoaren zati bati uko egiteko; herrialde bakoitzak bere moneta alde batera utzi du, adibidez. Halere, hezkuntzari dagokionez, herrialdeek ez dute onartzen inork gai horretan eskua sartzerik. Beraz, Batasunak irakaskuntza programak edo metodoak aldatzeko ekintzaren bat proposatuko balu, herrialdeek ez lukete inolaz ere onartuko. Egoera horren aurrean, Batasunak oso ekintza mugatuak gauza ditzake; hala nola, diru laguntzak ematen ditu herrialde bateko hizkuntza irakasleak beste herrialde batzuetara irakastera joan daitezen eta eskolen arteko ikasle trukeak bultzatzen ditu. Horrekin batera, diru laguntzen bidez, aurrerapen pedagogikoak ekartzen dituzten ekimenak edo proiektuak bultzatzen dira. Halere, gobernu bakoitzak erabaki beharko du proiektu horiek onartzen dituen edo ez.

Benetan beharrezkoa da egindako ahalegin horien guztien garrantzia onartzea. Urtero ehunka mila irakasle nahiz ikasleak beste herrialde batean bizitzeko aukera dute, denboraldi baterako, beste hizkuntza bat ikasiz. Halere, ez da oso argi geratzen ekimen horiek in atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan edo metodologian eragina izatea lortu den edo ez. Aztertzen ari garen ikuspegitik, hau da geure buruari egin behar diogun galdera: Batasunak bultzatutako hizkuntz programek zein neurritan laguntzen duten Europako hizkuntza aniztasunari eusten. Galdera horren erantzuna ez da positiboa. Deialdietan gutxien irakasten diren hizkuntzei garrantzia ematen bazaie ere, irakasle eta ikasle gehienak gehien hitz egiten diren hizkuntzak ikastera joaten dira; gainera, diru laguntzak jasotzen dituzten proiektuek hizkuntza horiek bultzatzen dituzte. Kaleratutako datu estatistikoak urriak badira ere, irakasle eta ikasle gehienek hizkuntza hauek ikasten dituztela ikusten da, ordenari jarraituz: ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelania eta italiara. Izan ere, hizkuntza horiek ordena horretan agertzen dira Europako herrialdeetako hezkuntza sistemetan. Errazago esateko, hizkuntz aniztasunari dagokionez, Batasunaren ekimenek hizkuntzen irakaskuntzaren joera nagusiak baieztatu besterik ez dute egiten.

Aurrera eginez, gogoratu behar dugu Europako hizkuntz aniztasuna ez dela estatuen hizkuntza ofizialetara mugatzen; aitzitik, Batzordearen dokumentuek “eskualdeko edo gutxien hizkuntzak” deitutakoak ere hor daude. Hizkuntza horiei dagokionez, Batasuneko goi ordezkariak ez dute hitzik ere esaten. Europako Parlamentuak, ordea, zenbait alditan adierazi izan du hizkuntza horiekiko interesa, eta horien aldeko neurriak hartzeko eskatu dio Batzordeari. Kezka horri erantzuteko, Batzordeak zenbait ekimen bultzatu ditu. Hizkuntza horien egoerari buruzko txostenak sustatu ditu; esaterako, Mosaic izeneko txostena, 2000n argitaratua. Bestalde, diru laguntzak eman dizkio hizkuntza horien egoeraren berri emateko lanean diharduen erakunde bati: “Gutxien Hedatutako Hizkuntzen aldeko Europako Buroa”. Azkenik, hizkuntza horietan egindako ekintza pedagogikoak ordaindu zituzten; halere, ekintza horiek eten egin ziren: Batzordearen aholkularitza juridikoak zalantzak adierazi zituen, ez baitzituen argi ikusten ekintza horiek Batasunaren Fundazio Itunarekin bat zetozenik. Beraz, esan daiteke Europar Batasunak etengabeko anbiguotasunak agertzen dituela, Europako hizkuntz aniztasunaren aldeko borrokari dagokionez. Alde batetik, eleaniztasuna defendatzen du, oro har, berezko ondasun kulturala delako. Beste alde batetik, ordea, bultzatzen dituen ekintzek hizkuntz aniztasuna eta Batasuneko kideen hizkuntza ofizialak parekatzen dituzte. Anbiguotasun horren beste adibide argi bat 2002. urtean zehar ospatutako “Hizkuntzen Urtea” da. Egindako ekintza guztietan hainbat eta hainbat hizkuntza agertu ziren, eta, azken laburpenean, aniztasun hori azpimarratu zuten. Halere, bultzada berri hori ekintza zehatzetan gauzatu nahi izan denean, beste hizkuntzei buruzko aipamen bakarra egin dute: Mosaic txostenaren bertsio berri bat

egitea, soil-soilik. Bitartean, Socrates programa estatu kideen hizkuntza ofizialak soilik barneratzen jarraituko du.

Horretaz gain, gaur egun, Europako hizkuntz aniztasuna ezin da hizkuntza ofizialetara eta “eskualdeko nahiz gutxieneen hizkuntzetara” mugatu. Izan ere, geroz eta etorkin gehiago daudenez, horien hizkuntzak ere kontuan hartu behar dira, eta hori argi geratu zen aurreko “hizkuntzen urtean”. Europako Parlamentua izan da gai horren inguruan kezka adierazi duen erakunde bakarra. Halere, Batzordeak ez du gai horri buruzko neurririk hartu. Egia esan, Europar Batasunak ez du gaitasunik izan gai horri buruzko politika bat egiteko, nahiz eta etorkin ugari etortzeak arazo larriak sorrarazten dituen. Beraz, baldintza horietan, arazo horren hizkuntz alderdiei aurre egiteko ausardiarik ere ez du izan, eta hori ez da harrizkeoa.

6.- HIZKUNTZAK ETA SISTEMA INFORMATIKOAK

Hizkuntza batek bizirik irauteko, irakatsi egin behar da. Gaur egun, ordea, sistema informatikoak agertu dira, eta, horren ondorioz, badirudi sistema horren baitan dauden hizkuntzek soilik iraungo dutela. Beraz, eleaniztasuna ziurtatzeko, orain arte kanpoan izan diren hizkuntzak sistema informatikoetan sartu behar dira.

Batasunak hasieratik izan zituen dokumentuak itzuli beharra, eta, beraz, zenbait hizkuntza sartu behar izan zituen sistemaren baitan (nahiz eta hori hasierako helburu bat ez izan). Batasunak Systrans izeneko sistema sortu du, benetan sistema eraginkorra; halere, ingelesa eta frantsesa itzultzeko soilik balio du, horiek baitira Batasunaren baitan sarrien egiten diren itzulpenak. Europako eleaniztasunari eusteko, ordea, Batasunak hizkuntza txikiak bultzatzeko tresnak sortu beharko lituzke, bai itzulpengintza automatikoaren alorrean, baita gainerako aplikazio informatikoetan ere, Internet barne.

7.-HIZKUNTZ ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Europar zenbait hizkuntza daudenez, hizkuntza horiek ezagutzea eta erabiltzea komeni izateaz gain, gai sakonagoak hartu behar dira kontuan. Zenbaterainoko eskubidea dute hizkuntza baten hiztunek –banaka edo taldeka ulertuta– hizkuntza hori erabiltzeko? Nori dagokio eskubide hori bermatzea? Europako Batzordeak, gai honetan ere, aurrea hartu dio Batasunari: 1991n “eskualdeko eta gutxieneen hizkuntzen Europako Gutuna” onartu zuen. Batasunak ere antzeko konpromisoa barnera dezake bertako kide izan nahi duten herrialdeei begira. Halere, gutun hori ez da hizkuntza ez-ofizialen hiztunentzat soilik. Beren herrialdeetatik atera eta Europako beste herrialde batean bizi direnak (ondoko herrialdean, oro har), hizkuntz gutxiengoak dira, nahiz eta jatorrizko herrialdeko hizkuntza ofizialean hitz egin. Egoera horiek ugariak dira ekialdeko Europar batez ere, eta, bereziki, laster Batasunean sartuko diren herrialdeetan.

Taldeko egoera horietaz gain (antzinako sustrai historikoak dituzte), Europar Batasunaren sorrerarekin zerikusia duten beste zenbait gai ere gehitu beharko lirake. Hain zuzen ere, EBk pertsonen eta salgaien joan-etorri askea ziurtatzen du, Batasuneko estatu guztien

artean. Joan-etorri horien ondorioz, lege arazoak sor daitezke, eta erraza da horiei buruzko adibideak jartzea. Batasuneko edozein herrialdeetako hiritar bat Batasuneko beste herrialde batean bizi bada, herrialde horretako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izango luke. Eskubide hori gauzatu aurretik, noraino eska diezaiokegu pertsona horri herrialde horretako hizkuntza ezagutzea? Noraino eska diezaiokegu hizkuntza hori ezagutzea lanbide jakinetan jarduteko? Eta salgaien kasuan, Europako herrialde batean ekoitzi eta Europako beste herrialde batean salduko den produktuari dagokionez, noraino eska dezakegu produktu horren edukiei buruzko informazioa salduko den herrialdeko hizkuntzan egotea? Eta makina baten kasuan, berriz, noraino eska dezakegu argibideak tokiko hizkuntzan idatzita egotea? Eta amaitzeko, salbuespen kulturala izenekoari dagokionez hau da, produktu kulturalak edo aisialdiarekin zerikusia duten produktuei dagokionez, noraino eska dezakegu horietan tokiko hizkuntza agertzea?

EUROPAR BATASUNEAN GAUZA DAITEKEEN HIZKUNTZ POLITIKA

Aurreko ideia guztiekin Europar Batasunaren hizkuntz politika nolakoa izan litekeen

aztertzen saiatu gara; EBk Europa eraikitzeko duen proiektuarekin bat etorriko litzatekeen politika, hain zuzen.

1. EBk benetako konpromiso bat hartu beharko luke Europako hizkuntz aniztasunarekiko, estatu kideen hizkuntza ofizialetara soilik ez dela mugatzen azpimarratuz.
2. Giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren aldeko konpromisoak ekartzen dituen hizkuntz ondorioak zein diren adierazi beharko luke. Horretarako, estatu kideek errespetatu beharko dituzten banakako nahiz taldeko hizkuntz eskubideak zehaztu behar lituzke.
3. EBk hizkuntzaren irakaskuntzaren eta ezagueraren alde egiten dituen ekintzek helburu hau izan beharko lukete: Europako hizkuntz aniztasunari eustea eta aniztasun hori sendotzea, merkatuaren joerei soilik jarraitu gabe.
4. EBren helburu nagusietako batek hau izan beharko luke: Europako hizkuntza guztiei sistema informatikoetan, itzulpengintza automatikoan eta Interneten sartzen laguntzea.
5. Azkenik, jakin badakigu Batasunak pertsonen eta salgaien inguruan ezarri dituen araudien ondorioz, hizkuntz egoera desberdinak sortzen direla, eta, batzuetan, arazoak ere sor daitezkeela. Egoera horiei aurre egiteko jurisprudentzia sistematizatu egin beharko litzateke, Batasuneko hiritar guztien hizkuntz eskubide eta betebeharrak biltzen dituen kode baten bidez.

Miquel Siguan.... 2003ko irailean

